

2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

| | | | |
|--------------------------------------|---|----------------------------|---|
| EGUNAK | Moodle zabalik: azaroak 13- abenduak 1 Zoom saioak: azaroak 21 eta 28 | IKASGELA/ TOKIA | Jardun bikoa: Moodle eta Zoom |
| IRAUPENA | 10 ordu | ORDUTEGIA | Zoom saioak 09:00 - 11:00 |
| ESKATZEKO AZKEN EGUNA | Urriak 20 | ONIRITZI EPEA | Urriak 23 - 27 |
| IKASLE KOPURUA | 12 gehienez | NORENTZAT | B2 mailako azterketa prestatzea helburu duten EAEko herri- administrazioetako langileentzat. Derrigorrezkoa da B1 maila egiaztatuta izatea. |
| IRAKASLEA | AEK | | |

ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU
OROKORRAK**

2. HEko ahozko azterketak sortzen trebatzea.
Ahozko horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.

**HELBURU
ZEHATZAK**

Azterketaren aurkezpena egitea.
IVAPeko proben balorazio-irizpideak azaltzea: komunikagaitasuna, jarioetasuna,
aberastasuna eta zuzentasuna.
Ahozko azterketan erabili beharreko estrategiak lantzea.
Komunigaitasuna zer den azaltzea.
Jarioetasunez berba egitea.
Aberastasunaren gaineko argibide batzuk ematea.
Zuzentasunari buruzko azalpenak ematea: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu
eta aholkuak ematea.

GAITASUNAK

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da, 2. HEko ahozkoak sortu behar
dituenean, egitura jakin bati jarraitzeko, eta bide horretan behar dituen tresnak
identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da, era berean, sortzen ari den testua
ebalutzeko eta, behar izanez gero, hobetzeko.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

METODOLOGIA

Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
Bakarka edo binaka egingo da lan.
Egindako lana konpartitu eta komentatu egingo da.



2. HE: AHOZKO AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTAROA

Bi zoom saioetan dinamika oso antzekoa izango da: hainbat azalpen, aholku eta jarraibide labur emango dira. Jarraian ahozko azterketaren entseguak egingo dira. Halaber, egiten zaizkien oharrak kontuan hartuta, ikasleek aukera izango dute euren alderdi positiboak indartzeko eta txarto egiten dituztenak hobetzen saiatzeko.

Lineako unitateetan ondokoak landuko dituzte:

PROGRAMA

- Azterketaren ezaugarriak.
- Ebaluazio Irizpideak.
- Azterketa egiterakoan kontuan izan behar dituztenak eta norberaren hutsuneak artezteko tresnak erakutsiko zaizkie.
 - Komunikatzeko gaitasuna
 - Egokitasuna
 - Koherentzia eta kohesioa
 - Aberastasuna
 - Zuzentasuna
- Ikasle bakoitzak bakarrizketaren entsegua bidez egin beharko du eta irakasleak zuzenduko dio.

EBALUAZIOA

- Ebaluaketaren helburua: ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- Ebaluaketan ikastaroan zehar egindako entseguak neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleek asebetetze-inkesta beteko dute.
Irakasleak balorazio-inkesta osatuko du.

APROBETXAMENDUA

Bi zoom saioetara bertaratzea.
Eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.
Bakarrizketaren ekoizpena egitea.

ZIURTAGIRI DIGITALA

Ziurtagiri digitala eskuragarri izango duzu posta elektronikoen jakinarazpena jasotzen duzunetik aurrera. *IVAPeko izapideak / Ziurtatzeak* atalean sartu.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

106,05 €

PREZIOA

AGINDUA, 2022ko ekainaren 20koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen diru-zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2022ko uztailaren 8koa, 132. zk.

